

## Haur Eskolako 2024/2025 ikasturterako matrikulazio-epea

2024/2025 ikasturterako, **2022an, 2023an eta 2024an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **apirilaren 22tik maiatzaren 3ra** bitarte egongo da zabalik.

Bestalde, **apirilaren 22an ATE IREKIAK** saioa eskainiko da, arratsaldeko **17:30etan**.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo [haureskola@udarregi.eus](mailto:haureskola@udarregi.eus) helbidera idatziz.



## Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

**Datorren asteartean, apirilak 16**, Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera izango da. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



## Bilera irekia Udarregiko familientzat

Ekainaren 22an Iruñean egingo den Ikastolen VII. biltzarra dela-eta, hausnarketa-prozesuan gara Euskal Herri osoko ikastoletan.

Horrela, Ikastola guztietan, lekuko komunitatearekin bilera irekiak egiten ari gara hausnarketa prozesu horretan nahi duenak bere ekarpena egiteko. Hiru txosten prestatu dira lanketa horretarako: [Nondik gatoz](#), [Non gaude](#) eta [Nora goaz](#). Udarregi ikastolan, saio ireki bat egingo da, **apirilaren 17an, asteazkena, 17:00etan** eraikin gorrian.

Ordu eta erdiko saioa izango da, **17:00etatik 18:30era**. Lehen bi txostenak aurrez irakurrita ekarri beharko lirateke testuinguratzeko eta hirugarren txostenaren lanketa, hau da, Nora goaz txostenarena, saioan bertan egingo genuke gero ekarpenak egiteko.

Saioa egoki antola dezagun, eman ezazu izena ondoko [galdetegian](#).



bihar

## Ikastolako Jai-Batzordea

Ikasturtean zehar hainbat ospakizun izaten ditugula-eta, Artezkaritzak, Ikastolak bere Jai-Batzorde propioa izatea oso lagungarria litzatekeela uste du. Horregatik, batzorde horretan parte hartzera gonbidatzen zaitu. Parte hartu nahi baduzu, bidali mezu bat [artezkaritza@udarregi.eus](mailto:artezkaritza@udarregi.eus) helbidera. Egin dezagun Ikastola denon artean!



## Udako aisialdi-eskaintza

Aurten ere Zirimolak, Ikastolen Elkarteko aisialdi taldeak, prestatu du [udako aisialdi-eskaintza](#). Euskal Herriko ertz guztietako haurrek uda Zirimolarekin batera gozatzeko aukera eskaintzen da. ikastolan bertan eskaintzen diren udalekuak ez dira antolatu Udarregin. **Izen-ematea maiatzaren 14ra arte** dago irekia. [Informazio gehiago...](#)



# HAUR-HEZKUNTZA

## Guraso-bilerak 0-3 urte

Bilera pedagogikoak antolatu dira eta datak honakoak izango dira:

**0-1 urte:** apirilak 16, asteartea 17:00etan

**1-2 urte:** apirilak 16, asteartea 17:30ean

**2-3 urte:** apirilak 17, asteazkena 17:30ean

\*Oharra: Txerrien gela bilera aurrerago egingo da.

Ez da zaintza zerbitzurik egongo.



## Baso-eskolako jantzien kobrantza

Apirileko erreziboarekin batera, **HH 3ko, 4ko eta 5eko familiei, baso-eskolako jantziengatik 5€** kobratuko zaizkizuela jakinarazten dizuegu.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Baso-eskolako jantzien kobrantza

Apirileko erreziobarekin batera, **LH 1., 2. eta 3. Mailako ikasleen familiei, baso eskolako jantziengatik 5 €** kobratuko zaizkizuela jakinarazten dizuegu.



## LH 5. maila: ikastolen arteko hartu emana

Gida turistikoari buruzko 2. hiruhileko disziplinar-teko amaierako proiektuari jarraipena emanez, datorren ostiralean, apirilak 19, Orioko ikastolako, 1h5. mailako ikasleen bisita jasoko dugu. Egunean zehar Usurbilgo altxorrak erakutsiko dizkiegu.



## LH1 eta LH2ko ikasle eta familiei zuzenduta

**Apirilaren 15ean, astelehena, 18:00etan, Sutegi Liburutegian: IRAKUR-JOLAS TXOKOA** saioaren **2. edizioa** eskainiko dugu, oraingoan **LH 1 eta 2ko ikasleei eta euren gurasoei eskainia**, hau da, haur bakoitzak guraso edo erreferentziatzko heldu batekin etorri beharko du.



Aurreko saioan bezala, Mari Garcíak hainbat ipuin eta olerki-liburu hautatu eta kontatuko digu, eta horrekin batera, horiek hurrekin partekatzeko baliabideak eskainiko dizkie helduei. Plaza mugatuak direnez, izena eman behar da Sutegi Liburutegian. Iraupena: 60-75 minutu.

# DBH

## Zorriak DBH1

**DBH 1eko** ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

**Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA**



## DBH3ko familientzat oharra

Ikasturtea aurrera doa eta DBH3ko ikasleek DBHko 4. mailako arlo jakin batzuen arteko hautaketa egin beharko dute. Irakasgai hauek ondo aukeratzeak badu bere garrantzia, ikastolako etapa amaitu ondoren gure etorkizuneko planei erantzun behar dielako.

Hau guztia azaltzeko bilera bat prestatu dugu, zein arloren artean aukeratu behar den, zein komeni den hautatzea, zergatik... eta abar aztertzeko.

**Eguna: Apirilak 16, asteartea**

**Ordua: 17:00etan (itzulpena egongo da)**

**Lekua: DBHko eraikinean**



## DBH 4ko familiei oharra

Jakin arazten dizuegu 2024/25 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre- matrikula-epaia **apirilaren 8tik 19ra** izango dela.



## DBHko ikasleei zuzenduta

**Sutegi Liburutegian SOLASALDI bat** prestatu nahi genuke **DBHko ikasleekin**; mintzagai izango dugun liburua, Liburutegian eskuratu ahal izango dena, **Irati Goikotxearen NOR** izango da, eta solasaldian zehar **Yolanda Arrieta izango dugu bidelagun**. Aipatu solasaldirako, gazteekin beraiekin adostu nahi ditugula eguna eta ordua; beraz, solasaldian parte hartu nahi duena, **etor** bedi **Sutegi Liburutegira**, eta bertan emango dizkiogu argibide gehiago.

